

KONTSUMITZAILE ARDURATSUA



Lehen Hezkuntzako 5. mailarako sekuentzia didaktikoa

Belén Mellado

2012ko urtarrilean berrikusia

Lan-eskema

Irakasgaia: NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA

Gaia: Kontsumitzaile arduratsua

Maila: Lehen Hezkuntzako 5. maila **Saio kopurua:** 6-8 saio

Proposamenaren testuingurua

Proposamenak bi atal ditu, 'kontsumo arduratsua' gaia dela eta: batetik, jakitea zer elementu hartu behar diren kontuan produktu bat hautatu behar dugunean; bestetik, produktuak erabiltzean arduraz jokatzeko segurtasunaren eta ingurumenaren errespetuaren ikuspegitik.

Kontu horiek lantzeko, eguneroko bizitzan aplikatzeko moduko ariketa erabilgarriak proposatzen ditugu.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak

- Herritartasunerako gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5. eta 6. jarduerak)
- Ikasten ikasteko gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5. eta 6. jarduerak)
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5. eta 6. jarduerak)
- Matematikarako gaitasuna (3. jarduera)
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (3., 4. eta 5. jarduerak)
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (1., 2., 3., 4., 5. eta 6. jarduerak)

Helburu didaktikoak

- Arduraz jokatzeko produktuak erosten eta erabiltzean.
- Jakitea zer elementu hartu behar diren kontuan produktu bat hautatu behar dugunean.
- Ingurumenarekin arduraz jokatzeko.
- Gure kontsumo-ohiturak pertsonetako errespetuan oinarritzea.
- Jakitea zein diren kontsumitzaile eta erabiltzaile arrunten ezaugarriak.
- Kontsumoak sortu dituen ohiturak balioestea.
- Produktuak arduraz aukeratzeko: irizpide sozialen eta ingurune-irizpideen arabera.
- Gure kontsumo-ohiturak ingurune naturalarekiko errespetuan oinarritzea.

Edukiak

- Kontsumitzaile arduratsua.
- Etiketen azterketa.
- Beharrezkoak diren eta ez diren produktuen arteko aldeak.
- Herrialde modernoek kontsumoak herrialde pobreetan duen eragina.
- Kontsumoak ingurumenean eragiten dituen ondorioak.
- Gure bizimoduak eta nola kontsumitzen dugun.

Jardueren sekuentzia:

Planifikatzea

- 1. saioa: Zer dakigu gai honi buruz? Aurreiritziak kanporatzea, jakintza maila

neurtzea eta irakasleak dituen helburuak identifikatzea.

Gauzatzea

- 2. saioa: Produktuek gizartean daukaten aldea, zenbaitetan umeak lanerako esplotatzea, eta produktuek ingurumenean zer ondorio eragiten dituzten.
- 3. saioa: Eztabaida.
- 4. saioa: Ondasun eta/edo zerbitzu jakin batzuk erabiliz, giza premiak asebetetzeko ahaleginak egiten ditugu.
- 6. saioa: Nahitaezkoa ez den kontsumoa gutxitzeak pertsona guztion bizi-kalitatea hobetu dezake.

Erabiltzea

- 7. saioa: Zer ikasi dugun: txostena, aurkezpena, elkarrizketa.

Ebaluazioa:

Adierazleak

- Ea ohartzen den kontsumitzaile arduratsuaren ezaugarriez.
- Ea joera daukan produktuak erabili eta botatzeko *kulturarako*.
- Ea gure bizimodua eta kontsumitzeko modua aldatu dituen.
- Ea konturatu den herrialde industrializatu eta aberatsetan kontrolik gabe kontsumitzen dela.
- Ea konturatu den herrialde pobreetan, berriz, batzuetan ez dituztela betetzen oinarritzko premiak, ez elikaduran, ezta osasunean ere.
- Ea konturatzen den premiazkoa ez duen kontsumoa gutxitzeak onura ekar dezakeela guztiontzat.
- Ea konturatzen den sortzen duen baino hondakin gutxiago sor dezakeela.
- Ea dakien kontsumoak zer ondorio eragiten duen.

Tresnak

- Hasierako ebaluazioa (1. jarduera)
- Autoebaluazioa.
- Ikasleei egindako behaketak.

1. JARDUERA: Zer dakigu gai honi buruz? Aurreiritziak ateratzea, jakintza-maila baloratzea eta irakasleak dituen helburuak identifikatzea.

- Premiazkoak dira nire erosketak?
- Badakit zein diren produktuek gizartean dituzten desberdintasunak
- Badakit zenbaitetan umeak lanerako esplotatzen dituztela?
- Badakit produktuek ingurumenean zer ondorio eragiten dituzten?
- Nahitaezkoa ez den kontsumoa gutxitzeak hobetu dezake pertsona guztion bizikaltatea?
- Energia aurrezteko jarraibideak eta baliabideak aplikatzeak aurrezte ekonomikoa sustatzen du. Hazi daiteke gure ekonomia baliabide naturalak alferrik galdu gabe?
- Nire ustez, sor nezake sortzen dudana baino hondakin gutxiago?

3. Zure lagunek opari batzuk erregalatuko dizkizute, baina denetarik daukazu, eta ez dakite zer erosi. Diru gutxi daukatela kontuan hartuta, lagundu iezaiezu, eta esan benetan zer nahi duzun. Eskatzen duzuna zure adinari egokitua izan dadila.



- Zenbat diru gastatuko dute?

3. JARDUERA. Produktuek gizartean daukaten aldea, zenbaitetan umeak lanerako esplotatzea, eta produktuek ingurumenean zer ondorio eragiten dituzten.

1. Zure lagunek jertse bat oparitu dizute. Produktu guztiek bezala, etiketa bat eduki behar du. Etiketak informazio asko ematen digu:

- Zerez eginda dagoen (%)
- Non eginda dagoen
- Nola tratatu behar duzun
- Zein den fabrikatzailea
- 'CE', Europar Batasunaren ikurra, (jostailuetan, etxetresna elektrikoetan...)

- Orain, hartu zure jantzi baten etiketa, eta jaso ezazu informazio guztia.


Itsatsi ETIKETA lauki honetan.



- Konposizioa:
- Non egin:
- Zaintzeko gomendioak:
- Fabrikatzailea:
- Ikurra:

2. Erosten ditugun produktu askotan, “*Made in Taiwan*”, “*Made in India*”, “*Made in China*” ageri da. Zer esan nahi du horrek?

1. Bilatu ezazu munduko mapa Google-n, jaitsi eta ondo aztertu.
2. Azaldu ezazu produktu horiek zer ibilbide egin behar dituzten hona heltzeko.
3. Marratzu mapan egingo dugun ibilbidea, kolorez. Eta, behar bezala marratzu duzula egiaztatu ondoren, markatu ibilbidea errotuladoren.
4. Zer garraio modu erabiliko dute? Zein da merkeena eta egokiena?



.....-tik Euskal Herrira IBILBIDEKO HERRIALDEAK eta haien KOORDENATUAK .	
HERRIALDEA	KOORDENATUAK

IBILBIDEAN ZEHARREKO HERRIALDEAK: KOKAPENA, HIZKUNTZAK, ERAIKIN INTERESGARRI BANA...

1. Zer kontinentetan dago herrialde bakoitza?
2. Zer hizkuntzatan hitz egiten dute herrialde horretan?
3. Nor da bertako agintari gorena (presidentea, erregea/erregina...)?
4. Nolako maila sozioekonomikoa daukate bertako biztanleek?
5. Bilatu egindako ibilbidean dauden eraikin interesgarrienak.
6. Bildu taula batean eraikin interesgarrienei buruzko datuak: elizak, jauregiak, museoak, ondare artistikoa...

Osa ezazu taula:

HERRIALDEA	KONTINENTEA	HIZKUNTZA(K)	AGINTARIA	MAILA	ERAIKINAK (izena)

Elkarrizketa

- Produktuak garraiatzeko, MODU bat aukeratu behar dugu. GARRAIO MODU horrek honako ezaugarriak bete behar ditu:


- Ahalik eta zama gehien eramatea.
- Ahalik eta azkarrena izatea.

- Ahalik eta gutxien kutsatzea.
- Ahalik eta diru gehien aurreztea.

Aukeratu ezazu ibilbide bat, eta hartarako behar diren garraio moduak.

Egin taldeak, eta, aipatu berri ditugun ezaugarriak kontuan izanik, aukeratu garraio modua.

Idatzi zuen iritziak:



Idatzi hemen zuen iritziak:

4. JARDUERA. Ondasun eta/edo zerbitzu jakin batzuk erabiliz, giza premiak asebetetzeko ahaleginak egiten ditugu.

1.- Herrialde industrializatu eta aberatsetan gertatzen da gehiegizko eta kontrolik gabeko kontsumoa; herrialde pobreetako batzuetan, berriz, ez dira betetzen ezta oinarrizko premiak ere: ez elikaduran, ez osasunean, ez segurtasunean, ez antzeko beste hainbat kontutan ere.

HAUSNARKETA



Erreparatu goiko argazkiari, eta idatzi lerro bitan zer iritzi eragiten dizun.



ATERA ONDORIOAK



1.- Atera zazpi desberdintasun. GAIA: "GIZONAK ETA EMAKUMEAK LANEAN"

1. _____

2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____
7. _____

2.- Atera zazpi desberdintasun. GAIA: "MUNDUKO HAURRAK"



1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____
7. _____

•Galdera hauei erantzuteko, Interneten bilatu dezakezu informazioa.

- 1.- Nongoak (kontinentea eta herrialdea) ote dira argazkiko umeak?
- 2.- Zenbat urte inguru izango dituzte?
- 3.- Joango ote dira eskolara?
- 4.- Jakingo ote dute irakurtzen eta idazten?
- 5.- Gurasoen menpean biziko dira?
- 6.- Zenbat aldiz jango dute egunean?
- 7.- Zenbat ordu egingo dute lan?
- 8.- Egiten duten lana. egokia da daukaten adinerako?
- 9.- Gaixorik daudenean, joango dira pediatrarenera?

10.- Izango dute botikarik?

5. JARDUERA. Gure esku dago INGURUMENA errespetatzen duen produktu bat aukeratzea.

5.1. jarduera. Ikertzaileak


PRODUKTUA ETA ONTZIA

LANEAN ARITU



Aztertu goian datozen produktuak

- **Etxean:**



kartoia



tetrabrika



beira



ontzi gabe

Zer egingo duzu bakoitzarekin?



Ontzi horiek botata, zer egin dezakegu haiekin?



❖ Plastikoak, zertarako?

❖ Beira, zertarako?

❖ Tetrabrika, zertarako?

Gai naiz galdera hauei erantzuteko eta adibideak emateko.

- Nire erosketak, premiazkoak dira?
- Zenbat diru gastatzen dut, eta zertan?
- Zer ondorio ditu nire jokabideak ingurumenean?
- Nire ustez, sor nitzake sortzen ditudan baino hondakin gutxiago?

- Egin aurkezpen bat ordenagailuan *PowerPoint* (edo beste programaren bat) erabilita. Gaia: *Gehiegizko eta kontrolik gabeko kontsumoa*.
- Erakutsi gelako kideei.

**KONTSUMITZAILE
ARDURATSUA**



**KONTSUMITZAILE
ARDURATSUA**

Produktu bat hautatzen dugunean, kontuan hartu beharrekoak:

- *nork egin duen*
- *segurtasun-arauak*
- *ontzia*
- *gure aurrekontua*



**KONTSUMITZAILE
ARDURATSUA**

Ingurumena, ahal duan neurrian, zaintzen dut.



6. JARDUERA. Zenbat eta gutxiago, orduan eta hobeto.

- Aipatu “erosi, kontsumitu eta bota” ezaugarriak dituzten 10 produktu.
- Aipatu “erosi, kontsumitu eta botatzeko” ez diren 10 produktu.
- Zein zerrenda izan da betetzen errazena? Zergatik?

Lehendabizi, benetan behar dugunari buruzko gogoeta egin behar dugu.

Lotu gezien bidez:

**ZENBAT ETA GUTXIAGO,
ORDUAN ETA HOBETO**

Gutxiago erabili behar ditugu supermerkatuetan ematen dizkiguten plastikozko zorroak.

Ez dugu erosi behar erabili eta botatzeko produkturik (paperezko ezpain-zapiak eta

**BENETAN BEHAR
DUGUNA**

Erosi produktua soltean, edo, bestela, erraz birzikla daitezkeen materialez eginak dauden ontzietan.

Aukeratu hurbileko dendak erosketak egiteko.

mukizapiak).

Gehiegizko paketatua saihestu behar dugu.

Erosketak egitera, oinez (ahal den neurrian).

Erabili oihalezko poltsak edo erosketetarako orgatxoak.

Erabili telazko zapiak.